

Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

# baikara

Donostia · Gipuzkoa

Mayo 2016ko Maiatza




## Euskal Eskola Publikoaren 25. Jaia Hendaian



### EHIGE

“Eskola inklusiboa”, Mesa redonda con politic@s



### GAURKOTASUNA

Emusik, Musika Eskolen Europako Jaialdia

# FAMILIAREKIN JOLASEAN



egia  
gros  
aiete  
amara  
bidebieta  
martutene  
intxaurrondo

[www.donostia.eus/familiarekinjolasean](http://www.donostia.eus/familiarekinjolasean)



DSS2016.EU



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Gazteria-Juventud

[donostiakultura.com](http://donostiakultura.com)

## donostia

04-08

p. 4 **Izarrak Plazara, gazteentzako trebetasunen lehiaketa**

- p.5 “Txoriak”, una Campaña escolar para observar la biodiversidad
- p.6 Emusik, Musika Eskolen Europako Jaialdia
- p.7 Aila30, 30 años de solidaridad con el pueblo saharai
- p.8 Breves-Laburrak

## gipuzkoa

09-15

p. 9 **Umeen Garuna Estimulatzeko ‘DO RE NI Eskolak’**

- p.10-11 “Eskola inklusiboa”, Mesa redonda con politic@s  
Koldo Mitxelena Kolorez Blai!
- p.12-13 Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren egitaraua
- p.14 Kutxa Ekogunea



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

**BAIKARA FEDERAZIOA**

Es la Federación de Asociaciones de Madres y Padres (AMPAS) de los centros de la enseñanza pública no universitaria de Gipuzkoa. En la actualidad están asociadas a la Federación 156 AMPAS, lo que representa más del 93% del total de AMPAS de Gipuzkoa. Por ello **BAIKARA** es la representante y portavoz del colectivo mayoritario de madres y padres del alumnado de los centros públicos de Gipuzkoa, actuando como tal en las negociaciones y foros en los que se debate y deciden los diferentes aspectos que puedan afectar a la educación pública en Gipuzkoa.

Gipuzkoako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako guraso elkartearen (IGEEn) federazioa da. Gaur egun, 156 IGE dira Federazioko kide, hau da, Gipuzkoako IGEen %93 baino gehiago. Horregatik, **BAIKARA** da Gipuzkoako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen ordezkari eta bozeramaile nagusia, eta hala jarduten du Gipuzkoako hezkuntza publikoan eragina izan dezaketen hainbat alderdi eztabaidatzen eta erabakitzen diren negoziazioetan eta eztabaidetan.

[www.baikara.org](http://www.baikara.org)



Baikaragurasoak



@BaikaraF



**ARGITARATZAILEA:** BAIKARA FEDERAZIOA

Baso-Txiki Kalea, 36, atzealdea. 20015 Donostia. Tfno 943327208. Fax. 943274977.  
e-mail: [baikara@baikara.org](mailto:baikara@baikara.org) / [rosa@baikara.org](mailto:rosa@baikara.org)

**Koordinatzailea:** Rosa Izquierdo. **Erredakzioa eta argazkiak:** Nagore Iraola, Oscar Moreno, Gipuzkoako SOS Arrazakeria, Txingudi BHI (Irun), Sasoeta Ikastetxea (Lasarte), Koldo Mitxelena (Errenteria), Ekogunea.

**Diseinua:** Lorea Lozano. **Inprimatzailea:** SVP. **Lege gordailua:** ISSN 1697-9109.



# IZARRAK PLAZARA, GAZTEENTZAKO TREBETASUNEN LEHIAKETA

## Ekainaren 18an jokatu da finala Intxaurrendoko Kultura Etxean

**I**zarrak lehiaketa 5. ediziora iritsi da. 18 urte arteko gazteek beren trebetasunak erakutsi ahal izango dituzte, hala taldean nola bakarka, aukeratzeko duten edozein disziplinan: musikan, teatroan, dantzan, magian... Eta, gainera, opari handiak eskuratu ahal izango dituzte. Jarduera horren helbururik printzipalena euskaraz sormen artistikoa sustatzea da, eta gazteek ondo pasa dezate la hori egiten duten bitartean.

Helburu horiek lortzeko antolatuta da trebetasun lehiaketa hau, 18 urtetik beherako gazteei zuzendua. Bi kategoriatu: bata 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat, eta bestea 13 eta 18 urte bitarteko gazteentzat. Haur eta gazte horiek edozein disziplina artistikotan erakutsi ahal izango dituzte beren trebetasunak, bai barkarka bai taldean.

Saio bakoitzak 5 minutu inguru iraungo du, eta pertsona hauek osatuko dute epaimahaia: Ainhoa Aierbek (antzezlea eta kantaria), Karlos Ngemak (dantzaria eta ko-reografoa) eta Ainara Ortegak (musikaria eta antzezlea).

Ekainaren 10ean, arratsaldeko 17:00etan, egingo da lehenengo hautaketa, atarikoa, Intxaurrendoko Kultura Etxean. Bai ikuskizunak bai aurkezpena euskaraz izango dira.



Ekainaren 18an, arratsaldeko 17:00etan, Intxaurrendoko Kultura Etxean izango da finala, eta sari-banaketa egingo da ekitaldiari amaiera emateko.

Epaimahaiak ikuskizun irabazlea hautatuko du kategoriatu bakoitzeko. Gainera, euskaraz egokien darabiltenei ere saria emango zaie, eta publikoak aukeratzeko duen ikuskizunarentzat ere beste sari bat izango da. Sariak bonoak izango dira, auzoko dendetan (Intxaurrendon) erosketak egiteko. Eta sari berezi bat ere emango da ikuskizun bat prestatzeko, profesionalen laguntza eta aholkularitzarekin; ikuskizun hori aurtengo udazkenean bertan aurkeztu beharko da.

Lehiaketa horretan parte hartu nahi dutenek maiatzen 1etik 27ra bitartean izena eman behar dute. Lehiaketaren oinarriak webgune hauetan aurkituko dituzue:

[www.donostiakultura.com](http://www.donostiakultura.com),  
[www.donostiaeuskaraz.eus](http://www.donostiaeuskaraz.eus)  
 eta [www.bagera.eus](http://www.bagera.eus).



# “TXORIAK”, UNA CAMPAÑA ESCOLAR PARA OBSERVAR LA BIODIVERSIDAD

La campaña ha sido diseñada por Fundación Cristina Enea en colaboración con la Sociedad de Ciencias Aranzadi y Kursaal Green

“

Txoriak”es un proyecto que pretende promover conceptos como

la reutilización, bioconstrucción, educación y biodiversidad. Todo ello mediante unas cajas-nido muy especiales, que en realidad parten de unas máquinas expendedoras de tabaco, que una vez inutilizadas, han sido adaptadas para tal uso.

“Txoriak”, que así se ha designado esta campaña, pretende promover entre el alumnado guipuzkoano varios conceptos como la reutilización, la educa-

ción, la bioconstrucción y el cuidado de la naturaleza mediante su observación. Por todo ello, se abre un periodo para que los centros escolares que lo deseen puedan participar en la campaña.

Cada centro educativo que participe contará con una caja-nido que podrá ser colocada en los espacios ajardinados del colegio. Tras su instalación toca la parte de espera a que pequeñas aves puedan acercarse a anidar. Para ello Fundación Cristina Enea ha creado, en colaboración con la Sociedad de Ciencias Aranzadi, un material



didáctico que está disponible a través de la web de la campaña [www.txoriak.com](http://www.txoriak.com) y que cualquier persona puede descargarse.

Además se van a celebrar talleres didácticos impartidos en el Centro de Interpretación de Ulía que bajo el título “Sobre tu cabeza” los alumnos y alumnas podrán conocer características interesantes sobre las aves locales más comunes y su hábitat. Aprenderán a reconocerlas, y obtendrán material didáctico complementario.

Más información:  
[www.txoriak.com](http://www.txoriak.com)  
 943453526  
 (Fundación Cristina Enea)



**D**onostia 2016 egitarauaren barruan, Musika Eskolen Europako Jaialdiaren hamabigarren edizioa ospatu da maiatzaren 4tik 7ra bitartean. Europa guztitik etorritako milaka musika-ikasleek parte hartu dute bertan. Maiatzaren 6a eta 7a izan ziren egunik bizienak, Errioxako eta Euskal Herri osoko 59 herrik –Euskal Autonomia Erkidegokoek, Nafarroakoek eta Iparraldekoek– programazio zabala gauzatu eta obratu baitzuten, herritarrei zuzendua. Jaialdiari hasiera emateko, Ilunben elkartu ziren parte-hartzaile guztiak topaketa batean, eta Sagüesen bukatu zen festa handi batekin.

Musika Eskolen Europako Jaialdia 2016ko proiektuaren oinarriarekin eta espirituarekin bat dator bete-betean, Europako herrien arteko harremanak eta hurbilketa bideratzen baititu, kultura anitzen dibertsitatea eta aberastasuna hauspotu, eta denek bat eta komunean dituzten bereizgarritasunak sustatzen dituzenez. Horrez gainera, elkarren berri izaten eta bata bestearen eza-guera sakonagoa izaten laguntzen die Europako herriei, eta horrek garrantzi bete du, belaunaldi berrien artean bereziki.

Era berean, Hiriburutzaren proiektuarekin gertatzen den bezala, Musika Eskoletako jaialdia berezia da, erabat desberdina besteen aldean, eta laborategiak, esperientziak eta planteamendu berriak hartu ditu bere egitarauan.

Festaz eta musika-ospakizunaz gainera, jaialdiari esker eza-gutzera eman dira musika-eskolak maila guztietan (herri, nazio eta Europa-mailan). Bestetik, ekitaldia ikasketatituri ere izan da, eta komunitateari balio izango dio etorkizuneko gizartearen erronkei modu eraginkorragoan aurre egiteko.


# EMUSIK, MUSIKA ESKOLEN EUROPAKO JAIALDIA

**120 kontzertu, Europa guztiko musika-eskoletako 8.500 ikasleek eskainia**



# AILA30, 30 AÑOS DE SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO SAHARAUI

Se ha creado una página web propia, [www.oporrakbakeandonostia.eus](http://www.oporrakbakeandonostia.eus), que pretende ser interactiva



los albergues de la ciudad, a la acogida en las familias solidarias. Se visitan lugares como los campamentos de refugiados donde los menores cuentan cómo es su día a día.

Además, se ha creado una página web propia, [www.oporrakbakeandonostia.eus](http://www.oporrakbakeandonostia.eus), que pretende ser interactiva.

## SAHARAN DAGOEN MINA BAKOITZEKO, LORE BAT



# 2

016 no sólo es el año de la Capitalidad Europea de la Cultura, tam-

bién es el del 30 aniversario de la solidaridad con el pueblo saharauí. El programa "Vacaciones en Paz", que ha hecho posible que cientos de niños y niñas saharauís hayan disfrutado de unos días alejadas de las duras condiciones del exilio en el desierto, cumple ya treinta ediciones. El primer grupo de niñas y niños vino a Donostia el año 1986. Desde entonces, cientos de saharauís y donostiarras han tenido la oportunidad de convivir, compartir e intercambiar sentimientos en unas vaca-

ciones "diferentes" e involuables.

El programa de aniversario Aila30 se inauguró el pasado 7 de abril, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento, con una serie de vídeos a modo de recorrido visual de estos 30 años del programa "Vacaciones en Paz", aprovechando para denunciar la situación que sigue viviendo el pueblo saharauí en los campamentos de población refugiada.

Los vídeos recogen testimonios directos de los distintos personajes del programa en estos años, desde sus inicios cuando medio centenar de niñas y niños saharauís llegaban a

Donostiako hamahiru ikastetxetako mila ikasletik gora loreak egin dituzte azken hilabeteotan. Ikasle horien erdiak San Telmo Museora joan ziren Mohamed Moulud Yeslem artistari loreak emateko. Ekitaldi hori Mina bakoitzeko, lore bat izeneko proiektu pedagogikoaren gailurra da. Proiektu horren helburua hamar milioi lore lortzea da, Lotsaren Harresiaren parean landatzeko, modu

sinbolikoan; bertan lurperatuta dauden pertsonen kontrako hamar milioi minen aurka protesta egin nahi da hala.

Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoaren Donostiako lagunek eta DSS2016EUK koordinatu dute Mina bakoitzeko, lore bat proiektua, eta helburua izan da Lehen Hezkuntzako ikasleei Mendebaldeko Sahararen egoera ezagutaraztea, eta herrialde hori alde-

ri alde zeharkatzen duen minaz inguraturiko 2.720 kilometroko harresiaren ondorioak salatzea.

Igeldo, Orixe Ikastola, Intxaurren Ikastola, Jakintza Ikastola, Aitor Ikastola, Arantzazuko Ama Ikastola, Mendiola, Amara Berri, Harri Berri-Oleta, Zuhazti Eskola, Intxaurren Hegoa, Ikasbide Ikastola eta Astigarragako Herri Eskolako ikasleek parte hartu dute.



## BREVES / LABURRAK

## BIZIKLETAK KONPONTZEKO OINARRIZKO MEKANIKALANTEGIA

**B**izikletak konpontzeko oinarrizko mekanika-lantegi bat egin berri da. Bertan, Easo Politeknikoko "Natur ingurunean gorputz eta kirol ekintzen gidaritza" zikloko ikasleek norberaren bizikleta nola konpondu eta mantendu erakutsi diete Zurriola Ikastolako DBHko 1. mailako ikasleei.

Esperientzia pilotua izan da, eta Mugikortasun Zuzendaritzako Eskola Bideak antolatuta du; lantegiaren helburua ez da soilik bizikleta puntuan jartzea eta hura mantentzeko behar den ezagutza transmititzea, institutura joateko garraio bide gisa erabiltze aldera, baizik eta

hezkuntza-maila desberdinen artean lankidetzat bultzatzea.

Honi buruzko informazio gehiago izateko:

[Eskolabidea@donostia.eus](mailto:Eskolabidea@donostia.eus)



## ORIXE IKASTOLA BERRITZEKO LANAK AMAITU DIRA

**D**uela aste batzuk ikusi daiteke Urgull-eko Orixe Ikastolaren eraikinararen aurrealdea itxuraz aldatu dela. Eraikinean hezetasun handia sartzen zen, izan ere, ez zegoen isolatuta. Ondorioz, azken hilabeteotan aurrealdea berritzeko lanak egin dira eta eraikina isolatu da eta, beraz, eraikin barruan hezetasuna sartzea ekiditen da.

Egindako lanak Eusko Jaurilaritzaren Udalaguntzak programaren barruan aurreiku-



sitakoak izan direla. Gogoan izan, Udalaguntzak programak diruz-laguntzen dituela hiriko hezkuntza zentroetan egiten diren obrak. Kasuan, proiektua Udalak egin zuen eta Eusko Jaurilaritzak aukeratu zuen eta lanen kostuaren %60 ordaindu du.

## KOLDO MITXELENA 27. LITERATURA LEHIAKETA

**K**oldo Mitxelena 27. Literatura Lehiaketaren sari-banaketa maiatzaren hasieran egin zen, Donostiako Udalbatza-aretoan.

Donostiako udalaren Euskazerberbitzuak antolatzen du Literatura lehiaketa, eta horren helburua da sormen literarioa sustatzea haur eta gazteen artean.

Edizio honetan 855 lan aurkeztu dira guztira, bost modalitatetan banatuta: 334

komiki, 46 poesia, 269 ipuin, 187 bertso eta 19 mikroipuin. Donostiako ikastetxeen parte-hartzea garrantzi handikoa izan da, eta, horien inplikazioari eta konpromisoari esker, 22 ikastetxetako ikasleek parte hartu dute aurten.



## "DONOSTIARA BEGIRA" ERAKUSKETA

**“**Donostiara begira” erakusketak ibilbidea egiten du hiriko historian berrera, ekonomiaren garapenari, hirigintzari eta alderdi sozialei eta kulturei erreparatuz, eta Donostiaren euskalduntasuna nabarmenduz. Erakusketak aukera bikaina eskaintzen du, beraz, Donostia hobeto ezagutzeko eta horren historia garaikidean sakontzeko.

Erakusketa, abenduan itxi ondoren, aberastu egin da, eta hainbat gune berri dira, hirian jasotako ondarea modu erakargarrian aurkezteko erronka helburutzat harturik. Funtsean mantendu egin da erakusketaren egitura eta xedea, eta zenbait ataletan edukiak eguneratu dira, bereziki, hiriarren eraketarekin, suntsiketarekin eta berreraikuntzarekin lotutako al-

derdiak, bigarren mendeurrenako materiala ardatz hartuta betiere. Hala, mendeurrenaren harira sortutako hainbat ikusentzunezko erakusketan txertatu dira, azalpenen parte osagarri gisa.



• **Lekua:** Motako Gaztelua, Urgullen.

• **Tel.** 943 481547

• **Ordutegia:** apirilaren 4tik ekainaren 30era, asteazkenetik igandera, 10:00 – 17:30.



# UMEEN GARUNA ESTIMULATZEKO 'DO RE NI ESKOLAK'

**Xabier Lizaso ikertzailearen proiektu berritzailea udan hasiko da hainbat eskoletan**



**K**irola, musika, arte ederrak eta euskara uztartuko dituen proiektu iraultzailea aho batez bultzatu dute lurraldeko instituzio guztiek. Udar jarriko du martxan Xabier Lizaso ikertzaile eta musikariak, hala eskatzen duten eskola eta ikastoletan. Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak eta Bas-kongada elkarteak bat egin dute, zehazki, haurren garuna estimulatzea xede duen ekimen honekin.

“Zero eta zazpi urte bitarteko haurren talde txikiekin, asko jota hamabost laguneko taldeekin lan egingo dugu, eta, jokoen bitartez, haurrek garunaren parteak landuko dituzte”, dio Lizasok eskolaz kanpoko ekimenari buruz.

Urte luzez formatua landu eta hainbat lekutan aurkeztu ostean, geletan bertan hasteko erabakia hartu du Lizasok. Izan ere, ikertzailearen ustetan, “giza-garuna ez dugu oraindik ia ezagutzen: musika-tailarren bitartez haurren erantzun ikusgarriak jaso ditut: gelan sekula hitz egin ez zuen ume ijitu batek jendaurrean hitz egitea, adibidez, edo ume autista ba-

tek makina bat abesti buruz ikasi eta dantzatzea”, azpimarratu du.

Proiektuaren barnean bi metodologia daude. Lehena, ‘Do Re Ni’ litzateke, zero eta zazpi urte bitarteko umeentzat, eta, musikak protagonismo handiagoa duen; baita antzerkiak, kantuak eta dantzak ere. Bigarrena ‘Jokoz barru’ dugu, non kirolak protagonismo handia izango duen. “Futboleko oinarrituz, baina bere inguruko biolentzia guztia zokoratuz, kirol berria asmatu dugu. Bertan ikasleek, kirolaz gain, abestu eta antzeztuko dute”, azaldu du.

## **Neguko ikastaroak, oportetako tailerrak**

Jarduerok bi taldetan banaturik izango ditugu: neguko ikastaroak eta oportetako tailerrak. Lehenak urritik urtarrilera arte, eta, otsailetik ekainera arte izango dira; astean behin. “Azterketak eta notak egongo dira, olinpiadak eta jaialdiak ere bai. Ikusputu ludiko batetik lan egingo dugu, baina edukiz horniturik eta sakon”, gaineratu du. Oporretako tailerrak, berriz, Aste Santuko, udako eta Gabonetako oportetetan izango egunero.



Informazio gehiago:

Xabier Lizaso:

644 40 02 18

Emaila:

xabier.lizaso@gmail.com

# “ESKOLA INKLUSIBOA”, MESA REDONDA CON POLÍTIC@S

Organizada por EHIGE tuvo lugar en Gasteiz el pasado 11 de mayo



## MAHAI-INGURUA POLITIKARIEKIN MESA REDONDA CON POLÍTIC@S

JONE BERRIOZABAL /EAJ-PNV/ BELEN ARRONDO /EH-BILDU/  
ISABEL CELAÁ /PSE/ IÑAKI OYARZABAL /PP/  
GORKA MANEIRO /UPyD/ ANA VIÑALS /PODEMOS/

MAIATZAK 11 MAYO / 18:00

VILLA SUSO JAUREGIA (PLAZA DEL MACHETE, Z/G), VITORIA-GASTEIZ

**ehige**  
gurasoen elkartea

**E**

El 11 de mayo EHIGE celebró la mesa redonda “Eskola inklusiboa”

en el Palacio Villa Suso de Vitoria-Gasteiz, evento que contó con la participación de representantes de partidos políticos: Jone Berriozabal (EAJ), Belén Arrondo (EH-Bildu), Isabel Celaá (PSE), Iñaki Oyarzabal (PP), Gorka Maneiro (UPyD) y Ana Viñals (Podemos). El objetivo no era otro que conocer de primera mano las medidas que van a tomar los partidos políticos para garantizar un sistema educativo inclusivo evitando la concentración de alumnado con necesidades educativas específicas, como el alumnado inmigrante en los centros educativos públicos.

Y es que como ya hizo público EHIGE en el documento “Propuestas para lograr un sistema educativo inclusivo” en el mes de marzo, hoy en día la escuela pública escolariza a un 75% del alumnado inmigrante y la escuela concertada sólo un 25%, cuando cada red escolariza a la mitad de todo el alumnado de la CAV. Lo más preocupante es que este desequilibrio entre las dos redes ha aumentado en 4 puntos porcentuales en los dos últimos cursos, lo que demuestra que las medidas que se han tomado en los últimos años no han surtido efecto.

EHIGE propone, entre otras, las siguientes medidas:

- **Puesta en práctica de manera inmediata de las medidas anunciadas por la Consejera de Educación:** control por parte de la Administración del 10% de sobre-ratio reservándolo exclusivamente para la escolarización de alumnado con necesidades; aplicar criterios uniformes en las comisiones de escolarización evitando acumular alumnado





de origen extranjero en centros escolares que ya poseen un porcentaje elevado de este alumnado; modificación del decreto de admisión 35/2008 en lo que respecta a los baremos para el acceso a un centro escolar.

• **Que el Departamento de Educación asuma y ponga en práctica las medidas aprobadas por el Pleno del**

**Parlamento Vasco con fecha 10 de marzo:** el estudio de creación de una Oficina única de matriculación a nivel territorial, modificación del baremo que prioriza las rentas familiares bajas, garantizar la participación de los representantes de las familias y sindicatos en las Comisiones de Escolarización, mejorar la estabilidad de los equipos docentes y sus direcciones y re-

ducir los índices de interinidad del profesorado.

• **Establecer criterios de proporcionalidad y de coresponsabilidad entre todos los centros para escolarizar al alumnado necesitado de apoyo educativo específico.** Muchos centros privados-concertados están aplicando medidas que no son coherentes con los

principios de calidad y equidad en los procesos de admisión del alumnado (criterios propios de baremación), así como en su escolarización (cuotas encubiertas obligatorias). Por ello, un porcentaje muy reducido del alumnado necesitado de apoyo educativo específico se escolariza en estos centros. Con el objetivo de compensar esta situación, y dado que los recursos destinados a educación son limitados, proponemos una revisión del actual modelo de los Conciertos Educativos, por el que se financia a la red privada, planteando como primera y urgente modificación reducir el importe de los recursos destinados a aquellos centros que no se implican en el objetivo de conseguir una escuela equitativa e inclusiva, destinando esos mismos recursos a aquellos centros que sí están comprometidos en hacer realidad estos principios básicos recogidos en la legislación vigente.

## KOLDO MITXELENA KOLOREZ BLAI!

**Familia askok parte hartu zuen festaren antolaketan**

**J**oan den apirilaren 23an, Errenteriako Koldo Mitxelena Herri Ikastetxeko Guraso Elkarteak, lehenengo aldiz, Kultura Aniztasunaren festa antolatu zuen.

Ikasturtean zehar, Guraso Elkarteak gaiaren inguruko ekintza desberdinak antolatu ditu: hitzaldiak, kulturen arteko topaketak, ... eta lan horri guztiari bukaera ona emateko, festa antolatu zuen.


Festaren helburua izan da eskola-komunitateak duen kultura



aniztasuna ezagutzera ematea eta elkarren arteko harremanak sendotzea. Familia askok parte hartu zuen festaren antolaketan.

Goiz osoan zehar ipuin-kontaketa 8 hizkuntza desberdinetan, munduko jolasak eta tailerrak, eta munduko 8 txokoetako pintxo-dastaketa.

Jende ugari hurbildu zen eta denek, bai txikiak eta bai handiak, gogotsu parte hartu zuten ekintza guztietan. Giro alaiak izan genuen eskolako patioan eta egindako lanaren emaitza islatu zen.





1

TRINKETE  
GUNEA

11:00 / 12:00

BASERRIA tailerrak (KAIKU)  
Artisauen gunea <sup>eo</sup>

11:30 / 12:30

Pirritx, Porrotx eta  
Marimotots: "Amalur"

12:00 / 13:00

HERRI  
BAZKARIA  
14:00 / 16:00

13:00 / 14:00

14:00 / 15:00

15:00 / 16:00

Antton Aranburu & Bikiak  
(kantugilea)

16:00 / 17:00

Eidabe: "Sardina freskue"

17:00 / 18:00

Patxi Perez eta konpainia  
(dantzaldia)

18:00 / 19:00

Gozategi

2

EMAZU ESKUA  
GUNEA

EMAZU ESKUA karpa

Perkusio tailerra  
(MUSTA) <sup>eo</sup>PIRATEN IRLA 0-14 urte  
jolasen gunea: <sup>eo</sup>

•Perkusioa bidoiekin

•Sandalia kooperatiboak

•Haurtxoentzako betetze eta  
huste gunea

•Hamakak

•Akuilu-makuiluak

•Memory pirata erraldoia

•Zirkoko jolasak

+

3

BIXENTE LIZARAZU  
ESTADIOA

PUZGARRIAK:

•Ohe elastikoak


•Jumping

•Futbol Bump

•Basket Run

•Slide

+

<sup>eo</sup>

4

BELTZENIA  
GUNEAEsperimentuen txokoa  
(ELHUYAR)  
(11:00etatik 14:00etara)Antxo eta Pantxa pailazoak  
13:00etatik 14:00etaraIKASTETXEETAKO  
JARDUERAKGURE ZURA tailerrak  
(HAZI)Elikadura eskola  
(EROSKI)NIREA txapa tailerra  
(HAZI)<sup>eo</sup>

Egunean zehar ZOZONGO batukada / Joaldunak / Iparraldeko dantzak / ZARPÄI banda

<sup>eo</sup> egun osoan zehar

# EMOZIOAK ETA BIZIPENAK NATURAN BILATUAZ BÚSQUEDA DE EMOCIONES Y EXPERIENCIAS EN LA NATURALEZA

Remitido/Bidalita

**K**utxa Ekogunean, Galarreta bidean kokatua dagoen Donostiako parkean, egun pasa ederra izan dezakezue naturarekin harreman zuzenean bizipen eta emozio zoragarriak izanik. Gure programa jolasaren eta praktikaren metodologian oinarrituta dago eta hezkuntzako jasangarritasun eta ekintzailetasun printzipioen baitan garatua da. Gure jardueretan parte hartzen dutenak esku eta bota zikinekin bueltatzen dira, emozioak gora hartuta. Bisita egin eta hurrengo egunean jada gaitasuna izaten dute aldaketaren aldeko ekintza bide desberdin eta anitzak abiarazteko.

## Eskaerak zabaldu 2016-2017 ikasturterako

Datorren ikasturterako diseinatutako ekimen eta tailerren gai nagusiak hauek dira: BARRAZAN oiloei jaten emango diete, lurtean murgiltzen dituzte eskuak, intsektuak harrapatzen saiatzen dira... Handienek landare aterakinekin baratzerako zukuak prestatzen dituzte, terrazetarako baratzea diseinatzen dute... URAREkin lotutako tailerrak Zabalaga errekatxoan hasten dira eta ur zikinen araztegi eta eraikuntzetan ere garatzen dira. Haurrek uraren ekosistema berreskuratua ezagutu eta fase desberdinetako espezieak identifikatzen dituzte, ura nola aurreztu... ENERGIAN, uraren eta haizearen dinamika naturalak aintzat hartuta urbanizatu eta eraikitzen dugun, naturari bere espazioak utziaz, material ahalik eta gutxien baliatuz eta hau berre-

rabiliaz. Bi eraikin bioklimatiko ditugu, bata lastozkoa eta bestea termo-buztinezkoa. HIZKUNTZA-EKOLOGIAK hizkuntzen elkarbizitza orekatu eta hizkuntza gutxiagotuen garapen jasangarriko neurriak hartzea du helburu. Ginkana batekin jolasean barneratuko dituzte parte hartzaileek hizkuntzen kudeaketa ekologikorako kontzeptu eta praktika ekologikoak.

**E**n Kutxa Ekogunea, parke ubikatu Donostian, camino de Galarreta, se puede pasar un día viviendo experiencias increíbles y sintiendo emociones en plena naturaleza. Utilizando una metodología basada en el juego y la práctica, nuestro programa se enmarca en los principios de la Educación

para la Sostenibilidad y la Acción. Quienes toman parte en nuestras actividades regresan a casa con las botas y las manos sucias, emocionados y además, el mismo día siguiente a la visita, están capacitados para realizar acciones en pro del cambio. Las temáticas de las actividades y los talleres diseñados para el curso 2016-2017 son: la HUERTA, el AGUA, la ENERGÍA y la ECOLOGÍA DE LAS LENGUAS.

## Ludoteca en verano

Y cómo no, contamos también con el novedoso espacio HAUR PARKEA, un parque infantil muy especial que en verano se convertirá en ludoteca para niños y niñas de 3 a 10 años. Bajo la mirada de los educadores/as los pequeños podrán: jugar de manera autónoma, participar en juegos dinamizados, realizar talleres y excursiones por el parque. Estará abierto del 4 de julio al 2 de septiembre entre 08:30 y 13:30h, y podrá solicitarse servicio de guardería ampliando el horario, con comida y recogida-entrega en bus en Donostia.



Informazio gehiagorako:

[www.hezkuntza.ekogunea.eus](http://www.hezkuntza.ekogunea.eus) eta [www.ekogunea.eus](http://www.ekogunea.eus)

Eskola erreserbak 943 552 020 telefonoz edo [erreserbak@ekogunea.eus](mailto:erreserbak@ekogunea.eus) e-mail bidez.

Rekalde-Hernani errepidea z/g (GI-2132, KM.2)

20009 - Donostia





EUSKAL ESKOLA  
 PUBLIKOAREN 25. JAIA  
 HENDAIA

**EKAINAK 5**



SUPER BAT KONTUA

# ORAIN **AURREZTEA ETA** **GOZATZEA** ABENTURA BEREAN SARTZEN DIRA

- 0 eta 16 urte bitartekoentzat.
- Erabateko malgutasunez eta komisiorik gabe.
- Aurrezkiek puntuak ematen dituzte,  
Super Bat Katalogoko\* opariez trukatzeko.



\* Super Bat katalogoko gaiak puntuez trukatzeko zerga du, kapital higigarriko errendimenduztat hartzen baitira.

  
**LABORAL**  
kutxa